

Bilboko Balioen Agiria,
uriaren konpromisoa



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ZER DA?

Bilbok badu jada bere **“Balioen Agiria”**. Balioak pertsona edo taldeen jokaera gidatu behar duten printzipioak dira.

Agiri honetan 17 balio daude oinarri bezala hurrengoak bultzatzeko:

- Bilboko bizilagunen bizimoduaren kalitatea eta ongizatea.
- Gure uriaren etorkizuneko garapena.

NOLA EGIN DA?

Balioen Agiria egiteko parte hartu dute:

- **Bilboko Udalak.** Ekimena abian jarri zuen eta hasiera bateko dokumentua egin zuen 10 baliorekin inkesta baten bitartez herritarrei galdetu ondoren.
- **Uriko herritarrek eta entitateek.** Parte-hartze eta eztabaida prozesu baten emaitza bezala beste 7 balio erantsi ziren.
Prozesu honetan 1.400 pertsonak parte hartu dute, batzuk euren kabuz eta besteek gizarteko, kulturako, ostalaritzako, sindikatu, udaleko, gazteen edo adinekoen entitateen ordezkari gisa.

ZEIN GARAITAN GAUDE?

1. Zenbait ekintza dituen Balioak Garatzeko Plana onartu da:

datozen urteetan abian jartzeko ekintzak (Udalarenak berarenak edo herritarrekin, entitateekin, enprekin lankidetzan).

2. Balioen Hiriaren Batzordea: Balioen Agiria

eta Garatzeko Plana kontsultatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko.

Edozein pertsona, entitate edo instituziok printzipio hauekin

jokatzeko konpromisoa bere egin nahi duenak

“Bilboko Balioen Agiriarekin” bat egin dezake.

Agiriarekin bat egiteko eta agiriari buruzko informazio guztia

hemendik: www.bilbao.eus

ZEIN BALIO JASOTZEN DITU AGIRIAK?

1

Giza Eskubideen Errespetua. Pertsona guztien eskubideak

errespetatzea, ditugun ezberdintasunak kontuan eduki gabe.

Gure bizitzak garatu ahal izateko baldintza sozialak,

ekonomikoak eta kulturalak eman daitezela.

2

Justizia soziala. Aberastasuna bidezko moduan banatu dadila

duintasunez bizitzeko gutxieneko materialak bermatzen dituen.

3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

Emakumeek gizarteko eremu guztietan egon eta parte har dezatela.

Emakume eta gizonen erantzukizunak partekatu ditzatela.

Genero-indarkeria erabat errefusatu izan dadila.

4 Elkartasuna. Pertsonen elkar lagundu diezaiozula,

egoera zailenak bizi dituzten horiekin

bidegabekeriarik gerta ez dadin.

5 Aniztasuna eta inklusioa. Diferentzia denontzako

ona eta positiboa dela onartzea, erakutsi eta ikusi dadila;

diskriminaziorik gabe. Denok parte hartzeko

eremu eta ekintzak egon daitezela.

6 Konpromisoa. Baliabideak eta bitartekoak guztion ongiaren

zerbitzura egon behar direla, helburu kolektiboak partekatuta.

7 Ingurumenaren jasagarritasuna. Egungo ingurumen

arazoei buruzko kontzientzia har dezagula. Gure bizitzeko,

kontsumitzeko eta uriko baliabideak erabiltzeko moduan aldaketak

egiteak lagungarri izan daitezkeela arazoak konpontzeko.

8 Elkarbizitza. Elkar errespetuz, zainduz eta abegi eginez,

elkarbizitzarako espazioak sor daitezela.

9 Nortasuna. Hiri bezala identifikatzen gaituzten

elementu kulturalak eta sozialak gordetzea.

Aldi berean, sor ditzakegun

edo iritsi daitezkeen berrietara batu gaitzela.

- 10 Esfortzua.** Jarritako helburuak lortzen ahalegindu gaitezela, modu profesional eta eskuzabalean.
- 11 Erantzunkidetasuna.** Erantzukizunak modu partekatuan banatu eta gauzatu daitezela Bilboko herritar, erakunde, enpresa eta entitateen artean.
- 12 Parte hartzea.** Gure uriko ekimen eta proiektuetan pertsonen parte hartzearen alde egitea, egoerarik ahulenetan daudenak barne hartzen saiatuta.
- 13 Konfiantza.** Pertsona ezberdinen arteko elkarriketarako eta lankidetzarako espazioak egon daitezela, denen elkarrenganako konfiantzatik.
- 14 Sormena.** Ideia berriak sortzen lagunduko duten espazioak egon daitezela, ideia horiek burutuak eta herritar guztion ongirako izan daitezela.
- 15 Zintzotasuna.** Pertsonen, erakundeen, enpresen eta entitateen jokamoldea zintzoa izan dadila. Gardentasunaren kulturak lan egin dezala.
- 16 Ilusioa.** Lor daitezkeen eta errealitate egin daitezkeen ideia eta proiektu berriak sortzeko ilusioa eta itxaropena jarri dadila.
- 17 Osasuna.** Ohitura osasungarriagoak eduki ditzagula, kirol, elikadura eta osasunerako kaltegarriak diren substantzien kontsumoa murriztearen garrantzia kontuan edukita.

Balioen zerrenda horren erdi-erdian Giza Eskubideen errespetua dago.

Horrekin batera, justizia soziala, emakumeen

eta gizonen arteko berdintasuna eta elkartasuna daude.

Hurrengo mailan daude aniztasuna eta inklusioa,

konpromisoa eta ingurumenaren jasangarritasuna daude,

beste lau balio hauekin osatzen dira:

elkarbizitza, nortasuna, esfortzua eta erantzunkidetasuna.

Azkenik, aipatutako balioak garatu ahal izateko,

parte-hartzea, konfiantza eta sormena proposatu dira.

Horiei beste hiru balio hauek gehitu zaizkie:

zintzotasuna, ilusioa eta osasuna.

